

## TERESA OLERKARI

### Sarreratxoa:

Santa Teresa Lisieux-koa, berez arima argi, fin eta sentibera, Jainko-maitasunaren ederraz liluratua, goi-argiz eta idealismoz jantzia, maila arruntetik gora olerkari-izaerara igoa ikusten dugu. Baina haren olerkari izatea santa izatearekin bateratsu doa; bi alderdiok bat dira harengan, edota bata bestearen osagarri. Bere arimaren ninika ireki berrian jasotzen duen Jainko-graziaren ihintza oparo isurtzen du hitz lauz eta bertsoz. Batean nahiz bestean Jainkoaren errukiak kantatzea du helburu. Edukia du beti gogoan, hau da, bere arimako haririk finenak ukitu dituen Jainkoaren maitasuna kantatzea. Pentsamendu horrek oso-osoa harturik bizi da eta hil ere halaxe hiltzen da. Bere Gurutzeari begira esandako azken hitzak dira hauek: "Oï! maite dut!... Ene Jainkoa... maite zaitut!". Hitz hori erabiltzen du bere bizitzako hiru eskuizkribuei amaiera emateko ere. Haren bizitza bera olerkitzat har daiteke ikuspegi erligiosotik begiraturik.

Orain dela ehun urte, nolabait esatearren, itzali zitzaigun izarra inoiz baino distiratsuago dugu. Izen bat az edo besteaz, gehienetan *Arima baten Historia* izenaz, haren autobiografia izan da beti erakarpena izan duena, garai batzuetan zoramenaraino. Haren luma-tik irtendako gainerako lanak, ale hautatu bat edo beste izan ezik, ez dira hain ederretsiak izan, eta olerkiak hauen artean ditugu. *Idazlan Guztiak* liburuan olerkiei egindako sarreran hau irakur genezake: "Olerkiak dira, zafantzarik gabe, *Deboziozko solas-antzerkiekin* batera, Lisieux-ko Teresaren idatzirik ezezagunenak". Azken hamarkada hauetan, ordea, Teresaren olerkiak geroago eta interesgarriago gertatzen zaizkio kritikari. Honela, Jainkoa gaitzat duten munduko olerki hautatuen antologia batean Teresak bere lekua du: Pierre Haitat, *Dieu et ses poètes* (Alençon, 1987, 402 orr., Desclée de Brouwer) lanak *Nire gaurko Kanta* olerkiaren laburpena dakar (329-330. orr.).

### 1. Haren olerkien zenbait alderdi:

Teresaren olerkia aztertu aurretik, haren ingurumaria, egoera eta horretarako zuen prestera ez aski ona izan behar ditugu gogoan. *Idazlan Guztiak* liburuko olerkiei egindako sarrerak laburbiltzen du hori guztia: "Haren olerki-lana ondo neurtzeko, ez da ahaztu

behar 1893ko otsaila eta 1897ko maiatza bitartean idatzia izan dela, horretan 'ofiziorik' arean ere ez zedukan hogei-hogeita lau urteko neska batek alegia. Haren literatura-kultu-  
ra, izan ere, hala-holakoa da, haren kultura orokorra eta ortografia bezala. Zelina haren  
ahizpak zehaztasun interesgarriak eman zituen, ahoz, idazlan hauei buruz:

1. Teresa Jesus Haurrarenak ez zituen bertso-arauak inorengandik ikasi. Ikasketa  
klasikoek aditzera eman ziotenetik atera zuen onura, bakarrik; buruz zekizkien, esaterako,  
Boileau-ren *L'Art poétique* lanaren zati batzuk.

2. Ez zuen inoiz "errima-hiztegirik" erabili, Karmel-en ez zegoen eta.

3. Ez zuen lekaime sartu aurretik olerkirik idatzi, eta Karmelen, gehienetan, bere  
ahizpen gurariei erantzuteko baizik ez zuen egin.

4. Sarritan egunean zehar eratzten zituen, lan bitartean zein barne-biltze une batzue-  
tan; baina, igandea bezalako jaiegunetatik kanpora, arratseko astialdi orduari itxaron  
behar izaten zion bere lanak idazteko. Ez zeukan olerkari apartekorik, baina atsegin izan  
ziztaizkion zati hautatuen bildumetan irakurritako lan batzuk; pozik irakurten zituen La  
Fontaine-ren *Alegiak* ere, eta hainbat zekizkien buruz.

5. Gehienetan, lehenengo inspirazioaz zirriborro bat egiten zuen, eta huraxe landu,  
pozik geratu arte. Baina harentzat, noski, bere gaiaren sakoneko ideiek gehiago balio  
zuten haiei eman beharreko olerti-azalak baino, eta sarritan honek nekarazi egiten zuela  
esaten zuen bere pentsamenduaren funtsa zehatz esateko.

Egitez, erromantiku batzuekin batera, Lamartine, Musset, Chateaubriand, Teresaren  
"olerti-ereduak" Karmelen abesten diren kantikak dira, inguruan dauzkan deboziozko iru-  
diak, bere ahizpen olerkiak (bereziki Aines Jesusenak egindakoak), eta bere erritmoak  
ateratzeko erabiltzen dituen kantuen testuak, gehienetan oso eskasak. Honen ondoren, ira-  
kur beitez olerki batzuk, *Maitasunez bizi*, *Jesusen Bihotz Sakratuari*, *Jesus bakarrik*, *Nire*  
*armak* zein *Arrosa hostokatua*, eta ikusiko da norainokoa den erakusten duten berezko  
jenioa: olerti-lehengai izpiritu-indarrez bikaindua izan da. Baina Teresa batez ere bere  
eguneroko janari diren biblia eta liturgiako testuek, eta era berean Joan Gurutzekoaren  
idatziek, daramate; haietatik ateratzen du bere inspirazioaren guna".

Bere xedea ere ez zen artea lantzea. Beste asmo batzuen eraginez ontzen zituen bere  
olerkiak: "eginbehartez ez bada, gutxienez zerbitzeko, laguntzeko, adoretzeko asmoz egi-  
ten ditu (ik. TG 220, adibidez). Tradizioari jarraitzen zaio, Karmelgo tradizioari. Aitor-  
tzen zaion dohaintxo erabili egin behar du eta hau eginkizun garrantzizkoa izango du  
bere bizitzan, inoiz ere xedea izan gabe" (*Idazlan Guztiak*; Olerkiei sarrera).

### **Literatura-motak**

"Olerkiok xede ezberdinetarako eginak dira. Batzuk 'agur-hitzak' baizik ez dira,  
gehiagoko uzirik gabeak; honetan Teresa, zio bategatik edo bestegatik, gutxi azaltzen da;  
beste batzuk unean uneko harian nahiz komunitateko gertaeren harian sortuak dira, ba-  
tzuetan ez lilura gabeak. Asko dira ahizpek *eskatuak*; hauetan, batzuetan, eragilearen esa-  
nera taxutzen ditu bertsoak, beste batzuetan, bere barrua irekitzen du zerbait (*Nire Zerua*  
*Niretzat*, *Zuk badakizu nire izena*, *Buruu uztea maitasunaren fruitu gozoa da*, *Lili bat*

*arantza artean*) eta beste batzuetan, berriz, guztiz zabaltzen da (*Nire gaurko kanta, Jesusen Bihotz Sakratuari, Jesus ene Maitea, oroi zaitetz!*, *Ahizpa Maria Hirutasunaren eta Aurpegi Santuarenaren Kanta (Maitasun egarri naiz)*, *Nik laster lehenengo aldiz ikusiko dudana!*, *Nola nahi dudan nik maitatu, Nire postasuna*), hala ere, hartzailea ahaztu gabe (ik. *Jesus bakarrik*).

Oso antzekoak dira ahizpa honen edo haren omenez eginak (*Zezilia santua, Zeruko Erreginak bere alaba maite Maria Aurpegi Santuarenari, Nire Zerua hemen behean!*, etab.) eta bereiztea zaila da batzuetan. Teresak gertakari batetik hartzen du bide zerbait irakasteko (*Jesus ene Maitea, oroit zaitetz!*), adore emateko (*Erregina bihurtu zen neska arizain baten istorioa*), dena leun bai leun, eta olerkiok arretaz ulertu beharrekoak dira, ez baitira adierazi behar egilea bakarrik gogoan izanik (*Nire Zerua niretzat*).

Azkenez, bere espresio askea diren olerkiak daude (nahiz eta eskariren bat aurretik izan edo idazpuruari eskaintzaren bat eraman), mota ezberdinetakoak hauek ere:

– Hautzaroko oroipenak, hauetan bere Martin ahizpak sartzen direla (batez ere *Santu baten Alabaren otoitza*);

– liturgi eragina duten goratzarreak (*Loreak bota*), hurbil somatzen dituen eta eredu dituen santuen gorlpena (*Zezilia santua, Aines Santuaren Errepika, Joana Ark-ekoarti*), Ama Birjinaren gorlpena (*Zergatik maite zaitudan, oi Maria*);

– borroka eta apostolutza olerkiak (*Nire Armak*);

– eta batez ere Jesusen, Aurpegi Santuaren, Bihotz Sakratuaren kontenplazio eta maitasun olerkiak, maitasun eta ezkontitz olerkien mailadi osoa, gero ta argiagoak eta tragikoagoak, fedearen gaua jausiz doan bitartean (*Maitasunez bizi, Jesusen Bihotz Sakratuari, Jesus ene Maitea, oroi zaitetz, Aines Santuaren Errepika, Ahizpa Maria Hirutasunaren eta Aurpegi Santuarenaren Kanta (Maitasun egarri naiz)*, *Nik laster lehenengo aldiz ikusiko dudana, Jesus bakarrik, Nola nahi dudan nik maitatu, Nire postasuna, Arro-sa hostokatua*)”.

#### **Olerkari “ofizioa”**

Teresak irakasle berezirik izan ez badu ere, ohiko arauak betetzen ditu, eta gainera horiek sarri-sarri gogorarazten dizkio bere ahizpa Aines Jesusenak. Poesia egiteko uzirik, xederik ez du; batez ere edukia da axola zaiona, mezua. Hala ere, badaki mezua, eduki ederra forma ederrez, jantzi apainez erakargarriago dela eta bere xedea hobeki bete dezakeela. Izan ere, Teresak behin baino sarriago ikusi izan du bere burua, sentimendu biziak, esperientzia bereziak izan ondoren, urri, hitz egokirik gabe; sentimendu horiek nola azaldu ez zekiela aurkitu da. Sentimenduak, bere mezuak (gehienetan izpirituak) adierazi eta komunikatzeko irrika bizia nabari zaio. Zeruan begiradaxo bat, keinu leun bat aski izango dela guztia eragozpenik gabe adierazi eta ulertzeko. Hori da kontsolatzen duena. Dena dela, ezarian-ezarian eta ekinaren ekinez malgutasuna erdiesten du. Hau da, trebeago bihurtzen da eta haren olerki askok badute artearen edo oderraren lilura ere. Agian, santutasunaren eragina izango da, euskal idazle eta olerkari ezagun batek esaten baitzuen santua eta olerkaria maila berean daudela. Goraxeago ere aipamen hau jarri dugu: “oferti-lehengai izpiritu-indarrez bikaindua izan da”.

### Olerkiak eta doinua

Teresaren olerki askoren goialdean zer doinuz kantatzekoak diren adierazten da. Eskura zuen kantutegiren bat erabiltzen zuen bere sorkuntzaren euskarriztat. Adituen iritziz, doinu horiek ez diete batere mesederik egiten haren olerkiei. Berak baietz uste zuen eta ez zen bakarria garai hartan: "Ahizparen olerkien bilduma bat Erromako Simeon Anaiari bidaltzean, 'tipikoenen artekoak', ahizpa Jenofak doinuak aipatzeko ardura du 'politago delako abestuz', dioenez" (*Idazlan Guztiak*, Olerkiei sarrera). Hortxe bertan hauxe irakurtzen dugu: "Doinurik gehienak izugarri zaharkituak dira, famili argazki zaharretako emakumeen kapelen antzera. Baina aurpegia da garrantzizkoa, ez kapela. Honela, Teresaren olerkia jaso ordez, haren 'doinuak' barregarri bihurtzeko arriskua du, apaingarri zaharkitu batek bezala.

Haren doinurik begikoenak bilduma honetan daude. Berez aukeratu dituzten bereak diren sorkuntzetarako. Zalantzarik gabe, bere kantuaren zerbait asmatzen du haic-tan. Erritmo zabala eskaintzen dute, haren sentipenei dagokien adierazpide sutsu edo nostalgikoa. Moldakaizkeria batzuk aparte, orduan hitzak eta doinua bat datoz benetan. Baina hau ez dela sarri gertatzen aitortu behar da. Izatez, haren harmonia lehenengo eta behin izpirituala da, 'Zeruko doinua', idatzitako guztia baino haragokoa".

### Zer da Teresak kantatzen duena?

Maitasuna da bere-berea duen gaia. San Pauloren hitzak hausnartuz, Kristoren Gorputz Mistikoa azaltzean, irudi horretan agertzen diren bokazioetariko bakar batean ere ez du ikusten bere burua Teresak, baina guztiak bere egin nahi lituzke. Hala gogoetaka ari zela, senak eman zion hauxe: "Eliza neure Amaren bihotzean ni maitasuna izango naiz" (B Esk. 3). Haren gogoa gai horren inguruan dabil beti eta horretaz esaldi biribilak botatzen ditu: "Maitasuna da erakartzen nauen bakarra" (A Esk. 83).

"Izan ere, Teresaren bizitza maitasun-kantua da. *Eskuizkribu Autobiografikoen* lehenengo orrialdetik iragartzen du: 'beti-beti errepikatuko dudana kantatzen hasi besterik ez dut egingo: Jaunaren Errukiak' (A Esk., 2<sup>a</sup>). 88. salmoaren aipamen hau dago 'Jesus eta Teresaren armarren' gainaldean ere, Aurpegi Santuaren ondoan harpa bat ageri dela idazkun honekin: 'Harpa ere Teresaren irudi da, Jesusi eten gabe maitasun-doinuak kantatu nahi dizkion haren irudi' (A Esk., 85<sup>1</sup>). Horrela geldituko da ahizpen oroi-penean, gerora arrosen Teresaren irudia garaile irten zen arte: Ama Ainesek *Arima baten historia*-ren lehenengo izenburutzat 'Maitasun kantua' aukeratu zuen; Maria Bihotz Sakratuare-nak 1897ko uztailaren 14tik hau esaten zuen: 'Haren bizitza zeruko doinu bat baino ez da izango' (DE, 703.or.), eta Zelinaren lehenengo koadroak (1899) honela irudikatzen zuen Teresa: Ebanjelioa haren bihotzaren gainean eta hura harparen hariak jotzen (santa Zezilia karmeldarra)".

Olerkia maiz izaten da norbere buruari espiluan begira, norbere arimaren sentimenduetan murgilduz egindako irakurketa artistikoa. Baina Teresaren olerkia ez doa hortik, alderantziz baizik: "Teresaren kantua familiar, ahizpei, neba misiolariei, zeruko santuei, Ama Birjinari, Jainkoari zuzentzen zaio; batez ere elkarrizketa izpirituala edo mistikoa da Jesusekin.

Haren poesia gehien baten "erbesteko kantua" da, atzerriko ibai ondokoa, *Super flumina Babylonis* 136. salmoa sarri aipatuz, *zerura* zuzentzen den kantua edo *Zeruaz* diharduena. Hortik hain sarri *zeru* eta *lurraren* arteko joan-etorri mugimentua, eta *aingeruen*, hegaz egitearen, *hegoen* eginkizuna" (*Idazlan Guztiak*, Olerkiei sarrera).

"Olerkiak bere emakume eta emazte samurtasun guztia azaltzen uzten dio. Zenbat bider ikusten duen bere burua maitearen "besoetan", honen bihotz gainean atseden hartzen, begietan irakurten, aurpegia laztantzen, maitasun-musua harengandik jaso nahiean! Bakanak dira hain sakon, hain haragiz, esan liteke, **Jainko** Semearen Gizakundearen sinistuz izan dutenak. Oraindik aurkitzen zuen "berezko atsegina" zeharo garbitua izango da sinismenaren lorraldiaz, berak C Eskuizkribuan (7<sup>1</sup>) dioen bezala, hain zuzen ere, bere olerkiez hitz egin ondoren. Bepiztuak hezi egiten du Madalena, berri honen berezko samurtasuna (A Esk., 38<sup>1</sup>/39<sup>8</sup>) gero ta "garbiago eta jainkozkoago" bihurtuz" (*Idazlan Guztiak*, Olerkiei sarrera).

### *Olerkien garrantzia*

Olerkien garrantziaz oraintsu arte ez da jonderik gehiena ohartu. Haren pentsaeraren adierazleak, André Combes jauna, Aita Frantzisko Santa Mariarena, Jans Urs von Balthasar, Jean Guilton, Jean François Six, Konrad De Meester, ordea, bai ohartu dira, eta Aita Godefroid Madalaine, berriz, hasiera-hasieratik. Ukaezina da olerkien garrantzia Teresa bere osotasunean ezagutzeko.

Baliabide poetikoak izpirituaren barrunbeak, sentimenduak, inkontzientea... agertzeko berebizikoak dira. Hoskidetasunak, erritmoak, bertsoak... adierazpide lauaren eta etorriaren berezko jarioa zailduz, olerkaria beste plano batean jartzera behartzen dute: irudiaren, metaforaren, hizkuntza poetikoaren planoan; hau da, barne-izaera nolabait isplartzeko trantzean. Horregatik adierazten dira olerkitan hitz lauz ezin adieraz daitezkeen alde ugari.

Teresaren olerkiei gagozkiola, aipa dezagun "Olerkiei sarrera" delakotik pasarte hau:

"Hizkuntza horrek berak, ahizpei zuzenduriko olerkietan, zenbait hesi zeharkatzen uzten dio (*Erregina bihurtu zen neska artzain baten istorioa*), hainbat aholku, hainbat egia itzurtzen, eguneroko bizitzan inor zauritu gabe azaltzea zail gertatuko litzaizkiokenak. Baina, areago oraindik, Olerkiek Teresaren harru-mugimenduaren berri ematen digute, haren garapenaren, dirdiraren, maitasunaren berri, eta beharbada denen gainetik sinismen-probako borroka gogoraren berri".

### **2. Zenbait gai eta olerkiri gainbegirada**

Jakina da Teresaren olerki guztiak ez direla balio berdinekoak, ezta gutxiagorik ere. Berak ere egina zuen nolabaiteko hautaketa, batez ere Bellière apaizgaiari eta Aita Roulland neba izpiritualentzat. Asko luza gaitzke olerki bat eta bestea aztertzen, haztatzen,

dastatzen... baina labur izan beharrez, banaka batzuetan ezarri ditut begiak: *Nire gaurko kanta, Nire poztasuna, Maitasunez bizi, Arrosa hostokatua, Zegatik maite zaitudan oi Maria, Zelinaren kanta.*

### *Nire gaurko kanta*

Teresak bere barne-egoera, bere nahi sakonak adierazten ditu olerkian barrena. Harmoniatsu eta gartsu. Hor ageri diren kontraste batzuek indar berezia ematen diote olerkari. Beste aldetik poesian erabiltzen diren ohiko gaietarikoa bat du euskarri: denboraren joana. *Gaur* hori du ihes doan eta oraindik etortzeko den *bihar* horren artean dagoena. Bere irrika biziak betetzeko huraxe besterik ez du. Horrek larridura antzeko airea bada-karkio ere, erantzun itzaropentsu eta baikorra dario Teresaren lumari, ahapaldirik gehi- netan erregu gisa datorrena:

(...) *Zuk badakizu, ene Jainko, lurrean zu maitatzeko  
ez dudala gaur hau baino besterik!...*

Erregu gisako esaldiak:

(...) *zaindu garbi nire hihotza, estal nazazu zeure itzalpean,  
gaurko besterik ez!*

(...) *Egun baterako soilik nire babes gozo izan zaituz.*  
*Emaidazu zeure irribarrea, zatoz nire bihotzean agintzera,  
gaurko besterik ez!...*

Teresarengan ohikoa da bizitza olatu zakarren arteko itsaso gisa ikustea. Maite du Ebanjeliotik hartutako irudia, hau da, ekaitz artean den txaluparen txopan Jesus lo dagoen- nekoa:

*Nik laster ikusiko zaitut betiko erriberan  
oi Jainko-lemazain! ni zuzen naramana bere eskuez.*  
*Olatu zakarren gainean nire untzitxo gidatu bakean  
gaurko besterik ez!*

Poeta mistikoen airea hartzen du ondoko ahapaldietan. Bere maitearekin bakardade- an, maiteminez ageri da:

*Utz iezadazu, Jauna, ezkututzen zeure begitardean  
munduaren soinu hutsalik ez dut gehiago entzungo han;  
emaidazu zeure maitasuna, gorde nazazu zeure grazian  
gaurko besterik ez!*

*Zure Jainko-bihotzaren ondoan, guzti-guztia ahazten zait;  
nik ez dut gau ilunaren heldurrik izango aurrerantzean.*  
*Ai! emaidazu, Jesus, lekutxo bat zeure bihotzean  
gaurko besterik ez!*

*"Ogi Bizia, Zeruko Ogia, Eukaristi santua  
oi Misterio sakratu!, maitasunak sortua...  
zatoz, nire Ostia zuri, nire bihotzean bizi izatera  
gaurko besterik ez!*

Azken ahapaldia oso Teresiarra da, haren hegaldi indartsu eta betikoarekin; baina amaieran errepikatzen den *gaurko besterik ez* aldatu egiten da hemen olerkiari azken beteagoa ematearren:

*Zure goratzarreak kantatzera joango naiz laster hegan  
iluntzerik gabeko eguna izan dezadanean nire arimarengan,  
orduak Aingeruen liraren bitartez dut nik kantatuko  
gaurko egun betikoa.*

### **Maitasunez bizi**

*Maitasunez bizi* isurialdi bakarrez sortzen da Sakramentu Santuaren aurreko une luzeetan. Bat-batean horrelako olerkia idaztea oso adierazgarria da. Maitasunez bizi eta maitasunez hil. Hauxe da olerki aberats, sakon eta luzean garatzen duen gogoetaren muina. Bere biografiaren azken zatia idazteari ekiten dionean, laster hilko delako burutzioa du. Sinboloetara beste olerki batzuetan baino gutxiago jotzen du oraingoan. "Ideiek, intuizioek olerkiaren gainetik daramate maiz; bederen, pentsamendu teologikoa hain handia izanik, nekez gauzatzen da forma poetikoan; berak 'bortxatu' egiten du olerkiera, edota ez du horren beharrik".

Ahapaldiak irakurri ahala, isurika doan iturri bat iruditzen zaigu, jario indartsuan doana. Darabilen gaia bezala olerkia bera ere gartsua eta gori-goria da, baina hitz lauuko lana irakurtzen ari garela dirudi. San Joan XIV, 23,27; XV, 9 aipatuz hasten da:

*"Maitasun-arvatsean, alegi gabe mintzo zela,  
Jesus zioen: maitatu nahi banaza inork  
bizitza osoz, nire Hitza gorde dezala,  
ikustera etorriko gatzazkio Aita eta biok.  
Eta geure bizilekua eginik haren bihotzean,  
harengana etorrira, beti maite izango dugu!...  
bake-baketan, bizi dadila nahi dugu  
geure maitasunean!..."*

Ia ahapaldi guztien hasierak definizio formakoak dira: "*Maitasunez bizitzea, zure bizitzaz bizitzea da (...)*".

*"Maitasunez bizitzea ez da lurrean / etxola jartzea Taborreko gailurrean. / Kalbariora igotzea da Jesusekin batera, / Gurutzea begiratzea, altxor baten antzera!..."*

*"Maitasunez bizitzea, Jesus lo egon dadinean, / atsedean egitea da olatu zakarren gainean; / oi! ez kezka, Jauna, ez baitzatut iratzartuko / bake-bakean itzaroten dut*

zeruetako ur-ertza... / Fedea bere oihala berehala du urratuko, / egunen batean zu ikus-  
tea da nire esperantza; / nire bela Karitateak haizatzen eta bultzatzen du, / ni Maitasunez  
bizi naiz!...

*"Maitasunez hiltzea, martiritza leuna, / eta horixe da nik nahi nukeena. (...)"*.

Tartean teologia handia eta pentsamendu trinkoak datoz. Bukaera, antzekoa da aha-  
paldi guztietan: "Ni maitasunez bizi naiz..." edo "neure goiburua idatzia dut bela gaine-  
an / maitasunez bizi" edo "Maitasunez hiltzen naiz ni!" edo "Jesus Jainko, egizu ametsa  
egia bihur dadila: / Maitasunez hiltzea!..."

### **Nire poztasuna**

Teresak olerki honetan husten duela dirudi bere arima osoa. Ama Aines Jesusenari  
eskainitakoa da. "Nire arima osoa hortxe dago", besterik ez dio Teresak *Nire poztasuna*  
Ama Ainesen esku, haren eguna dela eta, uzten duenean, eta bera fedearen proban unerik  
latzena, heriotz ordurarte iraungo zuena igarotzen ari zenean. "Esamolde eta irudi xume  
antzekoen ondoren, fede-jarrera eta borroka mistikoa dira jokoan daudenak eta aditzera  
ematen direnak, ahalegin artistiko handirik egin gabe, baina barne-tinkotasun eta bizi-  
indar izugarriekin. Hitz bakoitzak bere esperientziaren eta heldutasunaren pisua du, eta  
ahapaldien etorriak Teresaren 'arima' erakusten digu benetan.

(...) Ohar labur horrek ez du gutxiago apaintzen olerki osoa: oharkabean, Teresak  
itzurtzen uzten du paradoxa eta antitesi guztiak berak lorez estaliak dituela eta haren poz-  
tasuna maitasun-suak bizkorturiko borroka etengabea dela".

*Bada lurtean zoriona alferrik  
bilatzen duen arimarik;  
baina niretzat, alderantziz da:  
poztasuna nire bihotzean da.  
Poztasun hau ez da hutsala;  
beti-betiko daukat nik;  
udaberriko arrosak bezala  
egunero irribarre egiten dit.*

Haren poza maitasunean eta Maitearengan da. Nahigabeak ere badu zentzua Teresa-  
rentzat, baina beti maitasunaren baitan. Honela diosku berak bigarren ahapaldiaren  
amaieran: "eskerronez hartzen ditut aintzat / loretan tarteka dauden arantzak". Esan  
dugunarekin hari-harira datoz hirugarren eta bosgarren ahapaldiak:

*"Zeru urdina ilun bihurtzen denean  
eta utzi egiten nauela dirudienean,  
nire poza da itzalpean gelditzea,  
ezkutatzea, neure burua beheratzea.  
Nire poztasuna, Jesus nire maite  
bakarraren borondate santua da.*



*Horrela bizi naiz beldurrik gabe;  
 eguna bezain maire dut nik gaua.  
 Noizbait malakoak isurtzen haditut,  
 nire poza haiek ezkutatzean dago.  
 Oi! sufrimenduak bere xarmak ditu,  
 lorez ezkututzen jakinez gero.  
 Nik nahi dut isilik nekeak jasan,  
 Jesussek kontsolamendua izan dezan;  
 nire poza hura irri egiten ikustea,  
 nire bihotza erbesteturik denean..."*

### **Arrosa hostokatua**

Olerki hau zirraragarria da. Beronen sarreratxoan datozen hitzak dira egokien azaltzen digutenak:

"Mistiko gutxi joan dira, zalantzarik gabe, Teresa bezain urrun, gixoak jota, bere indarrak azkenetan direla, Jesusen urratsen atzetik bere 'ezereztasuna' eskaintzen maitasun huts eta osoko ekintzan. Horrelaxe agertzen zaigu hemen: ez du hark ezer eskatzen, bere burua uzten du, hura ia-ia heriotzaz beste aldean da, ia-ia maitasunaz beste aldean.

(...) **hit egin behar dut.** Hil, egunak igaro ahala agortuz, 'hostokatzen' den 'arrosa' bezala. Bere buruaren eskaintzarik osoenean: 'oso-osorik, berez-berez, neke gabe', ikuskizunik gabe, ("arterik gabe"). (...) Arrosa hostokatuaren ikurra, gaur egun dirudienez asko erabilia dena, bere edertasunik hunkigarrienean agertzen da hemen, bizi izandakoaren benetakotasunean.

Teresak honezkero ez du amets egiten Jesusi bere burua eskaintzeaz, haren oinazpian hostokatzeaz eta urtuz-urtuz hiltzeaz baizik (...)"

Lehen ahapaldian, alderoka ozta-ozta oinez dabilen Jesus Hauraren ointxoan azpian hostokatua izan nahi duen arrosaren irudia agertzen digu:

*Jesus, zeure Amak eutsita ikusten zaitudanean  
 haren besoak uzten,  
 alderoka saiotoxak eginez gure lur itunean  
 zeure lehen pausuak ematen,  
 zure aurrean nahi nuke arrosa bat hostokatu  
 bere hezetasunean,  
 zure ointxo goxoki dadin pausatu  
 lore baten gainean!...*

Ondorengo ahapaldietan kontrastea ezartzen du aldareetan apaingarri diren eta hostokatzen diren arrosen artean:

*Arrosa hostokatu hau, zuretzat oso-osorik,  
 Jainko-Haurra,*

*une bakoitzean opari izan nahi duen bihotzaren  
benetako irudia da.  
Jauna, arrosa heze batek baino gehiagok luke nahi  
zure aldaretan dirdir egitea  
hura zeuri eskaintzen zaizu, baina nik beste zerbaiz  
dut amets: hostokatzea!..*

*Arrosak bere bikaintasunean zure festa eder dezake,  
Haur Maitagarri,  
baina arrosa hostokatu jaurti egiten da beste gabe,  
haizearen jostagarri.  
Arrosa hostokatua berez-berez da eskaintzen  
ezerezean galizera.  
Neure burua, Jesus Haurra, pozik dut zuzan uzten,  
haren antzera.*

Ahapaldi hauek aski dira sentiberatasun pitin bat duena txunditurik uzteko; azken ahapaldia honela amaituko du:

*Zure haur-pausutxoan azpian nahi dut misterioan  
hemen behean bizitzea  
eta oraindik nahi nituzke nik Kalbarioan  
zure azken pausuak leuntzea!...*

#### *Zergatik maite zaitudan, oi Maria!*

Berak idatzitako lanen artean Mariari buruz pentsatzen zuena idatzi gabe gelditzerik ez luke inola ere nahi: "Nik beti egin dut amets kantu batean Andre Mariari agertzea hartaz pentsatzen dudana". Andre Mariari dagokionez, haren benetako bizitza da, eta ez ustezkoa hari benetan axola zaiona. Ebanjeliora joko du, beraz. Berak adierazten digu metodoa ere: "Ebanjelioak irakasten dit... eta bihotzak esaten dit".

"Baina zirrara eutsi batek zeharkatzen ditu ahapaldi horiek. Olerkiak une ederrak ditu (8, 16, 22... ahapaldiak); irudi zoragarriak aberasturiko olerkia dugu (3, 7-8; 7, 5-6...); harrian grabaturiko esaera antzekoak sortzen dira (10, 4; 16, 4, Teresaren **Kredo** gisakoa osatuz; eta 22, 3 esaera ospetsua). Ahapaldi harrigarri batez amaitzen da".

"Teresatxo" sinatuko du esku hebainduaz. Haren olerki-lan osoarentzat amaiera apal eta hunkigarria.

Hona goian seinalatzen diren irudietariko batzuk:

*ulertzen dut nik zure arimak, ibar gozo eta apalak,  
Maitasun-Itsaso den Jesus barruan eduki dezakeela!...  
Zure maitasun-hitzak dira etorkizuneko mendeak  
lurrindu behar dituzten arrosa mistikoak.*

## Harrian irarrita diruditen esaerak:

*Oi Ama maitte, ezin dezaket aingeru-inbidiarik aipa,  
haien Jaun Ahaltsua nire Neba maittea baita!...*

*Bai, maitatuz sufritzea zorionik garbiena da!  
Maitatzea guztia ematea da eta nork bere burua ematea*

Adibide eder gisa 8. eta 25. ahapaldiak jarriko ditugu, bata Teresaren pentsaera ezin hobeki adierazten duelako eta bestea olerkiari amaiera hunkigarria ematen diolako:

*Zuk, zeure apaltasunean, gordean eduki nahi zenuen  
mirariaren berri Jose Santu onak jakin ez zuenez,  
zuk, Salbatzailearen Jainko-edertasuna gordetzen duen  
Tabernakuloaren ondo-ondoan utzi zenuen negarrez!...  
Oi! zein gogoko dudan zure isiltasun esanguratsua!  
horixe da niretzat kontzertu gozo eta melodiatsua,  
Zeruko laguntza besterik itxaroten ez duen arima  
baten handitasun eta ahalmèn handia adierazten didana...*

*Laster entzungo dut nik harmonia gozo hori,  
laster joango naiz Zeru ederrera zu ikustera;  
nire bizitzako goizean iriz etorri zinen hori,  
oraindik iriz zatorzkit... Ama... hona arratsa!...  
Ez nau beldurtzen zure aintza gorenaren distirak  
zurekin sufritu dut eta orain nahi dut kantatu  
zure belaun gainean, Maria, zergatik maitte zaitudan  
eta zure alaba naizela beti-beti errepikatu!...*

**Zelinaren kanta**

Izadiaren kanta luze eta polita dugu hau; neurri laburreko 55 bostekoz osatua. Aha-paldien kopuruari dagokienez, berau da luzeena. Familiako oroitzapenak eta batez ere izadikoak dira olerki honen hezur eta mami. Izadia abegi erromantikoz jasotzen du bere baitan, baina batez ere ezin du ezkutatu loreekiko zaletasuna, bere olerkiak haien irudiz zipriztindurik eta haien lurrinez blaiturik dituelarik. Guztiz bestelakoa dirudien arren, azpi-azpian eta muin-muinean, Teresaren bihotz-marka du honek ere: *Maitasunez bizi* olerkiaren gailurra igaro ondoren, poztasunez zehazten ditu bere Maitearengan erafdaturik aurkitzen dituen Kreazioko aberastasunak.

“Ukaezina da Joan Gurutzekoaren eragina (Kantu izpirituala XIV-XV. ahapaldiak) eta Teresak berak ematen du hori aditzera 1995eko gutun batean (TG 135). Santu bien *senidetasuna* biek duten *funtsezko senean* datza, eta *sen hori* estetikatik harantz doa: sortu diren aberastasun guztiak Kristorengan biltzen dira”.

Olerki hau egitean *A eskuizkribua* idazten ari da eta kronologiari dagokionez, honek hartzen duen garaia hartzen du olerkiak ere, hau da: Karmelera sartu artekoa (1. ahapalditik 31.era) eta Karmelen sartuz gerokoa (32. ahapalditik 55.era).

Hona adibide batzuk:

*Maite nituen gari-soroak, ordeka,  
maite nuen urrutiko mendiska;  
oi! pozez ia ez nuen arnasarik hartzen  
nire ahizpekin ari nintzela biltzen  
loreak.*

*Atsegin nuen biltzea belartxoak,  
nabar-loreak... guztitariko loretxoak,  
nik hilatzen nuen bioleten lurrina  
eta batez ere kukuprakena,  
hain zen atsegina!...*

*Maite nuen bitxilore zuria,  
igandeetako joan-etorria,  
txoritxoak adarrrik adar kantari  
eta zeru aldearen urdin beti  
argitsua.*

*Atsegin nuen urtean-urtean  
neure zapata ezartzea kebidetan,  
esnatu orduko hara joanik,  
Zeruko jaia kantatu ohi nuen nik  
Eguberri!...*

*Oi! zein gogoko nuen begiralekuan,  
alaitasun eta argitasunez betekoan  
aita baten ferekak hartzea,  
haren ile zuri elurrezkoak  
behatzea...*

*Oi oroimen! zagan ohi dut goza,  
zuk oroitarazten didazu hainbat gauza:  
arratseko afariak, arrosen usain gozoak,  
alaitasunez beteriko basotxoak,  
udaldia!...*

*Nik dauzkat mahats-mordo atseginak,  
sorginorratz nabar txanbelinak,  
lore harrigarridun oihan birjinak,  
hautxo horail guztiak dauzkat nik  
heren kantuekin.*

*Zugan ditut nik iturriak eta mendia,  
aihenbelar, uztao, elorri zuria,  
igelbelar hezeak, atxaparrak, basarana,  
lertxun arinaren dardara  
leuna.*

*Nik dauzkat olo zoro eta dardaratsua,  
haizearen soinu lodi eta indartsua,  
armiarma-sarea, su gori gartsua,  
haize mehea, sastraka lorez jantziak,  
habiak.*

*Entzuten dut hadoala prestatuz,  
zure betiko jaia, ene Jainko...  
nire harpa isila sahatsetatik hartuz,  
zure belain gainean naiz eseriko  
zu ikusteko!...*

#### *Azken hitza*

Berak esango lukeen bezala, *bidetxoa* egin dugu Teresaren olerkietan zehar. Hobeki esan, gainbegirada arin eta soil bat egin diegu. Zer esan buruan zurrumbilo antzera dabil-tzan irudipen menderagaitz hauek bilduz? Izpiritu fin eta sentibera baten aurrean gaude. Sorkarien ederra dastatzeko bame-hari dardaragarriak ditu, baina batez ere Jainko-maitasunak harturik dago eta horren eragina ageri-agerikoa da olerkietan zehar. Ederretan ederrera den haren kontaktuak eraldatu eta gurentasun-aira ematen diela dirudi haren olerkiei. "Olerri-lehengaia izpiritu-indarrez bikaindua izan da. Baina Teresa batez ere bere eguneroko janari diren biblia eta liturgiako testuek, eta era berean Joan Gurutzekoaren idatziek, daramate; haieiari ateratzen du bere inspirazioaren guna".

Hasieran esan dugunez, bada Karmelen bertsoak idazteko tradizio txoa. Hori santa Teresa Avilakoagandik etor liteke. Baina eskuarki bertso hauek oso xumeak izaten dira: jai bat alaitzeko, norbaiti zorionak emateko, santuren baten omenez deboziozko koplak

eta antzeko piezatxoak izan ohi ziren. Beraz, artea, poesia haien xedeetatik urrun aurkitzen zen. Teresaren kasua berezia da, esan dugunez: Santa baten olerkiak dira. Mezua du batez ere helburu, baina mezu hori une askotan pentsamendu bikain, irudi aberats, esaldi indartsu bilakatzen da. Hau da, zirrara sortzen duten olerkiak dira mezua, adierazpidea eta bizitza bera bat datozelako. Hitz batez esanda, Jainko-maitasunaren, kontenplazio mistikoaren dardara nabari da Teresa Lisieux-koaren lumatik jalgitako bertsoetan.

*Luis Baraiazarra*